



AKORDIOA, 2014ko martxoaren 31koak, 2014ko otsailaren 24ko (otsailaren 25eko EHAA, 38 zk.) Ebazpenaz deitutako Udaltzaingoaren behin-behineko agenteen lan-poltsa sortzeko hautaketa prozeduraren Epaimahai kalifikatzailearena.

Goian aipatutako Epaimahai kalifikatzailearen idazkariak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 27.5 artikuluan ezarritakoa kontuan izanik, ondorengo

ZIURTATZEN DU

2014ko martxoaren 31n izandako bileran, aipatutako Epaimahaiak ondorengo Erabakiak hartu dituela:

LEHENA.- Deialdiaren 5.7. Oinarrian ezarritakoa betez, Epaimahai kalifikatzaileak 2014ko martxoaren 29an Epaimahaiak ospatutako bileraren Aktako testua argitaratzea erabaki duela, eta honakoa esaten duena hitzez-hitz

“17:15 izanik, ezagutzen probak dituen 50 galderen zuzenketa anonimoa egin ondoren eta deialdiaren oinarrian 5.7. Oinarrian xedatutakoa ezarriz, Epaimahaiak erabaki du ezagutza teorikoen proba gainditzeko beharrezko gutxieneko puntuazioa 17 puntukoa izatea, 6.2.a) oinarrian ezarritako puntuetatik 20 punturen baliokidea dena”.

BIGARRENA.- Akordio hau Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Iragarki-oholean eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako web orrialdean argitaratzea.

Akordio honen aurka, izapide-egintza izaera dutenak, ezin izango da administrazio errekurtsorik jarri, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 107. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Arkautin, 2014ko martxoaren 31n.

Izpta.: Epaimahai Kalifikatzailearen idazkaria